

Garaia Gunean Osagaien Gela abian jarri dute Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Taldeak, linea zuriaren, etxearen, elektronikaren eta etxeko energiaren inguruko alorrak ikertzeko.

2008/06/11

Ø Unibertsitatearen Enpresaren arteko harreman berritzailea sustatzen du laborategiak, Unibertsitateko ikasle eta irakasleek eta Osagaien Dibisioko kooperatibetako berrikuntzako arduradunek osaturiko talde oso gaitu baten bidez.

Ø Ikerketa horiei esker ikerturiko produktu-lineetan aplikazio elektronikoak sartu ahal izango dira, eta kontsumitzailearentzako segurtasuna, konforta eta energia ugari aurrezteko ekarriko du horrek.

Ø 2008-2012 aldi estrategikorako milioi bat euroko aurrekontua du laborategiak ikerketarako, eta 300 mila euroko inbertsioa egin da hori abian jartzeko.

Ø Laborategiko zortzi ikertzaileek osagai berriak eta kontzeptu aurreratuak garatuko dituzte. Horri esker teknologia klasikoak erabiltzetik irtenbide elektronikoko berritzaileak integrazterako bideraturiko urratsa emango dugu.

Arrasate, 2008ko ekainaren 9a. Garaia Gunean Osagaien Gela jarri dute abian Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak eta Mondragon Taldeko Osagaien Dibisiokoak. Laborategi hori gaur, ekainak 9, astelehena, inauguratu dute Mondragon Unibertsitateko errektore losu Zabalak eta Mondragon Taldeko lehendakari Jose Mari Aldekoak, besteak beste.

Inaugurazio horrekin Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak eta Mondragon Taldeak urrats bat gehiago eman dute ikerketaren eta berrikuntzaren alorrean, osagai berriak eta kontzeptu aurreratuak garatzeko: linea zurian (egosketa elektrikoan, gas bidezko egozketan eta garbiketetan), konforterako etxeko osagaietan (ura eta airea berotzeko aparatuetan eta berogailuetan), elektronikaren (domotikaren sektorerako sistemetan eta komunikazioen alorrean) eta etxeko energiaren (beroa eta energia elektriko osagarria lortzeko mikrosorkuntzako irtenbideetan). Ikerketa horiei esker etxean ur, gas edo CO ihesei aurre egiteko segurtasun osoa bermatuko duten produktuak garatuko dira, etxeko bizitza atseginagoa egiteko teknologiak. Adibidez, etxetresna elektrikoak edo etxebizitza kontrolatu ahal izango dugu telefono mugikorra erabiliz, eta sortu daitekeen edozein arazo konpondu, nahiz eta etxetik hainbat kilometrotara egon. Energiaren alorrean, beroa eta energia elektriko osagarria lortzeko mikrosorkuntzako erabilerak garatuko dira, eta horrek energiaren kostua txikituko du, eta CO₂ gutxiago isuriko da.

Unibertsitatearen eta Enpresaren arteko harreman berritzaile horri esker, talde egonkor oso gaitu bat sortu ahal izan dugu, Unibertsitateko ikasle eta irakasleek eta Osagaien Dibisioko kooperatibetako berrikuntzako arduradunek osatua.

Proiektua abian jartzeko 300 mila euroko inbertsioa egin da eta 2008-2012 aldi estrategikorako milioi bat eurotik gorako aurrekontua izango du. Momentuz, osagaietarako teknologia aurreratuak espezializaturiko zortzi pertsonen egiteko lan zentro horretan, eta orain arteko jarduerari esker bi patente garatu dira. Gainera, zentroak instalazio berrietan jarduera handituko duela uste du.

Inaugurazioa gaur da Arrasateko Garaia Gunearen instalazioetan, Mondragon Taldeko lehendakari Jose Maria Aldekoaren eta Mondragon



Inaugurazioa

Unibertsitateko errektore Iosu Zabalen parte-hartzearekin. Horrezaz gain, inaugurazio-ekitaldian Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria Vicente Atxa, Mondragon Taldeko Osagaien Dibisioko I+G zuzendari Javier Aranceta eta Dibisioko kudeatzaileak ere izan dira.